

## **OROZKOKO KULTUR ETXEKO GIMNASIOA ERABILTZEKO ARAUAK**

### **86. artikulua.—Deskribapena**

Mantentzeko gimnasia, aerobic, gimnasia erritmikoa etab.eko ikastaroak ematera bideratutako instalazioak dira.

### **87. artikulua.—Sarrera**

Gimnasioetara harpidedun txartela erakutsiz sartuko da, harpidedun dena, eta sarrera-kontrollean kasu bakoitzean dagokion alokairu- tasa ordainduta.

### **88. artikulua.—Araudi berezia**

a) Kirol oinetakoak eta arropa jantzita sartu ahal izango da soilik, eta debekatuta dago gomazko zolarik gabeko oinetakoak erabiltzea.

b) Gimnasioak ahal dela Orozkoko Udalak antolatutako ikastaroetarako erabiliko dira. Hori dela eta, gimnasioen erabilera ikastaro eta gainerako jardueren erabilera beharren menpe egongo da.

c) Gimnasioetako material eta ekipamenduen erabilera desegokia zigortu egingo da, gutxienez sortutako kalteak ordainaraziz. d) Orozkoko Udalak bere egiten du gimnasioak egokitzat jotzen duen edozein jarduerarako erabiltzeko eskubidea, betiere itxieraren berri aurrerapen nahikoaz emanda.